

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Estatuko Zerga Agentziak eta Nafarroako Ogasunak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute borondatezko betearazpena sustatzeko eta zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko

Akordioa dela bide, informazioa modu automatikoan trukatu da bide elektronikotik, eta datu-baseetara zuzeneko sarbidea izatea erraztu da

Miércoles, 25 de mayo de 2011

Juan Manuel López Carbajo Zerga Agentziako zuzendari nagusiak, Estatuko Administrazioa ordezkatzuz, eta José Ignacio Pérez de Albéniz Nafarroako Ogasuneko zuzendari-kudeatzaileak lankidetzaz hitzarmena berria sinatu dute gaur goizean. Horren bidez, zerga-betebeharrak borondatez gauzatea eta zerga-iruzurra prebenitu eta horren aurka borrokatzea lortu nahi da, bi administrazioen artean informazioa trukatzeko egon den ibilbide luzearen barruan.

Hitzarmenean bi administrazioek eraturako eta azken hilabeteetan lanean aritu den izaera teknikoko lantaldearen ondorioak bildu dira. Ekitaldi horretan, Álvaro Miranda Simavilla funtzioko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak parte hartu du.

Zerga-baliabideen kudeaketan emaitzak hobetzea zerga-agintarien etengabeko helburua da, Estatuan zein Foru Komunitatean, are gehiago gaur egungo testuinguruan, gastu publikoari eutsi eta gastu hori murriztu nahi da eta. Ildo horretatik, gaur sinatutako hitzarmena zerga-iruzurra prebenitu eta horren aurka borrokatzeko eskura dauden erremintak hobetzeko bidean aurrerapausoa da.



Estatuko Zerga Agentziako zuzendaria eta Foru Ogasuneko zuzendaria hitzarmena sinatzen, Miranda aurrean dela

Zerga-betebeharrak betetzen ez badira, lehia eta jarduera ekonomikoaren funtzionamendu ona distortsionatzen dira, politika publikoen eraginkortasuna murrizten da eta zama publikoei eusteko justizia- eta ekitate-printzipioei eraso egiten zaie;

horrez gain, defizit publikoa sortzen laguntzen da.



Estatuko eta Foru Komunitateko Ogasunetako arduradunak, xehetasun teknikoez arduratu den ekipoarekin

Hori dela eta, zerga-iruzurra guztion arazo moduan hartu behar da, ez bakarrik zerga-kudeaketaz arduratzen diren organoen arazo moduan; izan ere, kaltetuak guztiok gara eta ondorioak gizarte osoak jasaten ditu. Solidaritaterik ez dutenek eta iruzurgileek arauak zintzo betetzen dituzten herritar gehienei eraso egiten diete, eta horien zerga-ahaleginaz aprobetxatzen dira. Hori dela eta, hitzarmen honen bidez, bi administrazioek elkarrekiko lankidetzaren aldeko interesa adierazi dute.

Zerga-betebeharrak borondatez betetzeari dagokionez, honakoa jaso da sinatutako akordioan:

- Nazioko lurralde osoan eragiketak egiten dituzten zergadunen aitortpenak aurkezteko erregistro elektronikoa bakarria (batez ere enpresak), horien betebeharrak formalak murrizteko.

Ekimen hori Zerga Agentziak jaso zuen 2009an eraturako Enpresa Handien Zerga Foroak esanbidez proposatuta. Foro horrek enpresen eta zerga-administrazioaren artean harreman kooperatiboaren eta elkarrekiko konfiantzaren esparrua sustatzen du. Lantalde batek erregistro elektronikoa ezarriko du eta lehenengo fasean BEZ aitortpenetarako ezarriko da. Hori dela eta, 2012ko uztailera arteko autolikidazioetarako prest egon behar du.

- Eragiketa lotuak baloratzeko lankidetzaren, aurreziako balorazio-akordioak sustatuz eta eragiketa lotu horietan aitortutako balio-zuzenketen ondorioz sortutako ezarpen bikoitzeko kasu posibleak ezabatuz.

Iruzuraren aurkako borrokaren arloko lankidetzaren indartzeari dagokionez, hitzarmenean hurrengoak ezarri da:

- Zerga-informazioa modu elektronikoan eta berehala trukitzea eta bi organismoen datu-baseetara sarbide zuzena izatea. Gaur egun, Estatuko Zerga Agentziaren eta Nafarroako Zerga Ogasunaren arteko informazio-trukeak aldi-aldi egiten dira; hala ere, abusuzko zerga-planifikazio konplexuak sistema estandarizatu bizkorrago eta bat-batekoagoak eskatzen ditu. Bi administrazioen artean adostutako informazio-trukerako sistema berriak datu-baseen izaera erreserbatua izango du, eta zergak modu eraginkorrean aplikatzeko erabiliko da.

- Egoitza fiskala egiaztatzeko kasuetan lankidetzaren bizkortuko da, zerga-betebeharpekoen benetako egoitza egiaztatzeko beharrezko informazioa eta frogak biltzeko.

- Enpresen zerga-kontrola indartzea eragiketen bolumenari dagokionez.

- Elkarrekiko administrazio-laguntza arlo fiskalean eta nazioarteko hitzarmenetatik eta Europar Batasuneko arauditik eratorritako lankidetzaren informazioa trukatzeko.

- Bilketa exekutiboaren arloko lankidetzaren elkarrekiko asistentzian aurrera egiteko zerga-zorrak kobratze aldera.

Amaitzeko, bi administrazioek konpromisoa hartu dute epe laburrean Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeko kideak izendatzeko.

Lantaldeak hitzarmenaren xehetasun teknikoak zehaztu ditu. Estatuko Zerga Agentziaren aldetik, hurrengo hauek osatu dute: Juan Manuel López Carbajo zuzendari nagusia; Elena Guerrero Martínez Planifikaziorako eta Harreman Instituzionaletarako Zerbitzuko zuzendaria, Roberto Pérez Ramón Zerga Agentziaren Nafarroako ordezkari berezia; eta Isabel Ayo Benítez teknikaria. Foru Ogasunaren aldetik: José Ignacio Pérez de Albéniz zuzendari-kudeatzailea; Idoia Nieves Nuin Zerga Kontrolerako zuzendaria; José Javier Zabaleta Zúñiga Arau Garapenerako eta Fiskalitaterako Zerbitzuko zuzendaria; eta José Luis Azárate Sanz Zerga Informaziorako Sistemen zerbitzuko zuzendaria.